

2020.eko martxoak 30

Familia estimatuak

Oso une zail, konplikatu eta aldakorrek bizitzen ari gara. Denon Eskolaren Zuzendaritza Batzordean jakin badakigu guztiok egiten ari garen ahalegina handia dela langileak eta era berean gurasoak garelako.

Horregatik, guk, batzordekide garen Lurdes, Yolanda, Maite, Ana, Oihana eta Juan Carlosek, azken egunotan hezkuntza publikoa defendatzeko eta Guraso Elkarte eta familia gisa behar dugun babesa bermatzeko egiten ibili garena jakinarazi nahi dizuegu.

Gure seme alaben eskola orduak garatu ahal izateko ikastetxe bakoitzean abiatu egin diren heziketarako plataforma guztien inguruko zalantza, arazo eta zailtasunen jarraipena egiten ibili gara, batez ere heziketa birtualerako behar diren tresna hauek eskuratzeko zailtasun gehien izan duten familien kasuan. Ibon eta Soniak etxetik lanean jarraitzen dute zerbitzuak eman eta daukazuen zalantza eta kezkei erantzun emateko.

Konfinamendua hasi zen lehen egunetik Arabako Hezkuntzako Lurralde Ordezkarria den Blanca Guerrerori eta, EHIGERen bidez, Hezkuntza Sailburua den Cristina Uriarteri familia eta lana konfinamenduak irauten zuen bitartean bateragarriak izateko gure kezka helarazi egin genien; baita bekak mantentzea eta baliabide gutxiko familientzako eskola jantokietako laguntzak mantentzekoari buruzkoak ere, eta baita gaur egun bertan behera utzita dauden eskolaz kanpoko ekintzetarako kontratatuta dauden begiraleen kontratuak eta nominak mantentzeko laguntzen ingurukoak ere.

Azken gai honen inguruan zera jakinarazi behar dugu; joan den 2020ko martxoaren 28an argitaratutako Errege Dekretuak esaten duena jarraituz Denon Eskolatik kontratatuta dauden eskolaz kanpoko begiraleei eragiten dien Aldi Baterako Enplegu Erregulazioko Espedientea aurkeztea erabaki dugula. Aukera guztiak azterturik gure ustez konponbiderik bidezkoena da begiraleei begiratuta ikasturtea bukatu bitartean dagokien soldataren gehiengoa bermaturik dutelako eta era berean Guraso Elkartei begira kalte ekonomikorik txikiena eragiten duelako.

Horrez gain jakin ezazue EHIGERekin batera Bastidan ospatu behar den Euskal Eskola Publikoaren 2020ko edizioa ohiko datan, maiatzeko lehen igandean, ez ospatzea aztertzen ari garela. Atzeratu beharko bagenu espero dezagun hurrengo ikasturtean egin ahal izatea orain arteko lan eta ahalegina zoragarriak izan baitira. Aukera baliatu nahi dugu Arabako Errioxako ikastetxeak jaiaren antolaketan egiten ari diren lana aitortu eta eskertzeko.

Edozein zalantza edo iradokizunetarako betiko telefonoan aurkituko gaituzue.

Agur bero bat



Lurdes Errasti Arrieta

“Denon Eskola”ko Presidentea

2020.eko martxoak 30

Queridas familias

Nos está tocando vivir momentos difíciles, complicados y muy cambiantes. En la Junta de Denon Eskola somos conscientes de que este esfuerzo nos está tocando muy de cerca porque somos a la vez trabajadores/as y madres y padres.

Por eso, nosotras, Lurdes, Yolanda, Maite, Ana, Oihana y Juan Carlos, os queremos informar de lo que hemos estado haciendo estos días en defensa de la educación pública y en la protección que debemos recibir como AMPA y familias.

Hemos estado muy pendientes de todas las dudas, problemas y complicaciones que están surgiendo sobre el desarrollo escolar de nuestras criaturas a través de las plataformas educativas que se han creado en cada centro escolar y el acceso de las familias más desprotegidas a este tipo de educación virtual. Ibon y Sonia siguen trabajando desde casa para dar servicio y responder a las dudas y preocupaciones que tengáis.

Desde el primer día de confinamiento hicimos llegar a la delegada de educación de Álava, Blanca Guerrero, y a través de EHIGE, a la consejera de educación del Gobierno Vasco, Cristina Uriarte, nuestras preocupaciones sobre la conciliación familiar para compaginar la vida familiar y laboral mientras durara el confinamiento; sobre el mantenimiento de las becas y ayudas de los comedores escolares para las familias con menos recursos y sobre las posibles ayudas para mantener los contratos y las nóminas de los monitores/as que tenemos contratados en nuestras actividades extraescolares ahora suspendidas.

En este sentido os queremos informar de que atendiendo al Real Decreto publicado el pasado 28 de marzo de 2020 hemos decidido presentar un ERTE (Expediente de Regulación Temporal de Empleo) que afecta a los monitores/as de actividades extraescolares contratados/as desde Denon Eskola. Analizadas las posibilidades hemos entendido que es la solución más justa para con los monitores/as que de esta manera podrán prácticamente percibir los salarios hasta fin de curso y a su vez la que menos perjuicio económico va a acarrear a las AMPA.

También queremos comentaros que se está valorando con EHIGE la posibilidad de no celebrar en su fecha habitual, primer domingo de junio, la Fiesta de la Escuela Pública Vasca 2020 de Labastida. Esperamos que en caso de tener que retrasarla se pueda celebrar el curso que viene porque el trabajo y esfuerzo que se han hecho han sido magníficos. Desde aquí queremos agradecer y reconocer ese esfuerzo a las escuelas de La Rioja Alavesa.

Para cualquier duda o sugerencia que tengáis, seguimos atendiendo en los teléfonos de siempre.

Un saludo



Lurdes Errasti Arrieta

“Denon Eskola”ko Presidentea